

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

4750

EBAZPENA, 2022ko urriaren 27koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakaritzako behin-behineko langile bat kargutik kentzea xedatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan eman zaizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Concepción Quintana Aguirre andrea Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko aholkulari kargutik kentzea (kodea: 5269; dotazioa: 1; maila: zuzendaria, beste kargu bat betetzeagatik.

Bigarrena.– Kargutik kentzeak 2022ko azaroaren 4tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 27a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.